

**AMEZTI-ZAR BASERRIA KRISTOBAL BALEZIAGA PASEALEKUA 54-56-58-60-62  
A MAILA**



**Egile eta data ezezagunak**

**Deskribapena**

Eraikuntzen multzo heterogeneoaz osatutako baserria. Horien artean, duten landa kutsuagatik, atxikitako bi eraikin nabarmentzen dira. Bi isurkiko estalkiak dituzte eta fatxadak, batez ere, zurezko bilbadurako hormen, eta dimentsio eta lotura neurriduneko harlangaitz horma pintatuaren bidez daude eraikita. Multzoan, badirudi eraikin horiek direla beren inguruan sortutako hazkundearen jatorria. Horietako batek tamaina handiagoa du bi isurkiko estalkian eta haren fatxada nagusiaren zati bat estalita dago ondorengo zabalkuntza baterako. Multzo berean, harlanduzko dorrearen eraikuntza ere nabarmentzen da.

**Babes erregimena**

- \* Erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- \* Berariazko erregimena:  
"Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).